

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Landa-negozioek marketin digitala besarkatzen dute garatzen hasteko

Arabako Foru Aldundiak sustatutako marketin digitalaren proiektua bosgarren ediziora iritsi da

Ekitaldian parte hartu dute LHko ikastetxeetako ikasleek, marketin digitaleko estrategiak txertatu dituzten landa-eremuko hogeit bat enpresek, eta Iñaki Guillernak, Arabako Foru Aldundiko Erronka Demografikoaren zuzendariak

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 27a. Arabako landa-eremuko hogeit bat negozio txikik marketin digitaleko tresnak txertatu dituzte Egibideko (Hetel) eta Ciudad Jardin-eko (Ikaslan) Marketin eta Publizitate eta Salmenta Kudeaketako Goi Mailako Zikloko ikasleen laguntzarekin, bi ikastetxeetako irakasleek eta ikasle ohiek gidatuta.

Arabako Foru Aldundiak sustatutako proiektuaren helburua enpresa-ekimen horien lehiakortasuna bultzatzea da, gehienak landa-eremuan kokatutako enpresa txikiak.

ESPERIENTZIA ABERASGARRIA

Lanbide Heziketako ikastetxeek enpresei laguntza eman diete komunikazio digitaleko estrategiak diseinatzeko eta ezartzeko eta beren produktuak eta zerbitzuak online saltzeko proiektuetan.

“Gure ikasleek benetako proiektuetan lan egiteko eta konpetentzia profesional eta pertsonal berriak garatzeko aukera izan dute. Duela bost urte hasi genuen esperientzia oso aberasgarria da oraindik” adierazi dute proiektuen arduradunek.

ENPRESA PARTE-HARTZAILEAK

Parte hartu duten enpresek sektore oso desberdinetan egiten dute lan. Landareen eta laboreen hobekuntzarako parke agriboltaikoak bultzatzen dituzten enpresetatik, muskuluen sendotzean eta txakurren fisioterapiari, ibilgailuentzako zibersegurtasunean, ehun-diseinuetan, landetxeetan, upeltegietan, ingurumen-kontserbazioan eta -hezkuntzan edo landa-dekorazioan eta artisau-dekorazioan adituak diren enpresetatik.

Parte hartu duten enpresen balorazioa oso positiboa izan da. Guztiek tresna digital desberdinak txertatu dituzte, beren beharren eta garapen-unearen arabera.